

# BERRIGARA

73. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1992, uztallak 17

**ANTZUOLA  
ETA SANTA  
MARINAKO  
JAIAK  
ASTEBUKAERAN**

**IBILGAILUEN  
AZTERKETA  
TEKNIKOA  
EGITEKO  
TAILERRA  
ZABALDUKO DA  
AURKI  
BERGARAN**

## KIROLAK

**ION LAZKANO  
ESKALATZAILEA  
ETXEAN,  
HIMALAYATIK  
BUELTAN**



**Pittura Bergarese a Ortonovo  
29 pintore bergarar Italiara**



OPEL ASTRA BERRIA

**POTENTZIA  
ADIMENTSUA**



OPEL

**TALLERES  
OLA, S. L.**

Olabarrena Auzoa, z/g.  
Tfnok: 76 33 44 / 45 / 46  
BERGARA (Guipuzkoa)  
Erakusketa ARRASATEn:  
Loramendi, 2. Tfnok: 79 05 86  
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA  
ETA GOIERRI GARAIrako  
kontzesionaria

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK ESPERIENZIAZ.

# "ARRISKU-SOLDATA" Programa

Bergarako Udalak, INEM eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Laguntzaz antolatutako programa.

**HELBURUA:** Enpresa txikiak sortzekoasmoa daukaten promotore berriei, euren enpresarako ideia aztertzeke aukera ematea.

**EMATEN DEN LAGUNTZA:** Aurkeztutako enpresa-proiektuen artetik, bi aukeratuko dira. Ondoren, bi talde hauetatik, bakoitzeko pertsona bat kontratatuko da. LANA, beraien enpresa-ideiaren bidegarritasuna aztertzea izango da. Horretarako PRESTAKUNTZA eta AHOLKULARITZA ere eskainiko zaie.

**PARTE HARTZEKO BALDINTZAK:                      AURKEZTU BEHARREKOAK:**

- |                               |                                    |
|-------------------------------|------------------------------------|
| - 18 urtetik gorakoa izatea.  | - NAN-aren Fotokopia.              |
| - Langabezian aurkitzea.      | - Langabetu txartelaren fotokopia. |
| - Bergaran erroldatua egotea. | - Errolda-ziurtagiria.             |
|                               | - Enpresa-idearen aurreproiektua.  |



**IZENEMATEA ETA INFORMAZIOA:**

- BERGARAKO UDALA (Enplegu Dinamizatzailea)
- IZENEMATEKO EPEA 1.992ko uztailaren 30ean amaitzen da.

## KIROL BIDEO EMANALDIAK

**NON:** San Martin Plazan

**NOIZ:** Asteazkenetik-Ostiralera, gaueko 10.30etatik aurrera

**ASTEAZKENA 22:** Kirola eta natura, skia, mendi ibilaldiak, piraguismoa eta Bergaran izandako Eskalada Txapelketaren montaia.

**OSTEGUNA 23:** Euskal bizikleta 92 (Audiobisualak), Bergarako triatloilariak eta Krossa Euskadin.

**OSTIRALA 24:** "Begarako kirola" (Benito Canterok egindako audiobisualak), Aitor Zabaletaren txapelketak eta Bergarako motorzaleak.

ETOR ZAITEZ BERGARAKO KIROLARIAK AKZIOAN IKUSTERA!!

**DOHAINIK!!**

**Antolatzailea: Udal Kirol Zerbitzua**

# BERRIGARA

**Argitaratzailea:**

Jardun Elkarte

Errotalde Jauregia, 20.570  
Bergara

**Tfnoa eta Faxa:** 76 03 97

**Babeslea:** Bergarako Udala

**Laguntzailea:**

Eusko Jauriaritza

**Erredakzioa eta maketazioa:**

Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil

**Publizitatea eta harpidetzak:**

Aitor Aranzabal eta Edurne Arenaza

Tfnoa: 760397

**Erredakzio-kontseilua:**

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex Labaien

**Kolaboratzaileak:** Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkorobereziar, J. M. Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai, Maripi Laskurain, Nerea Alzelai, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel Elkorobereziar, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña, I. Sorondo eta Leire Etxaniz.

**Argazki laborategia:**

B. Cantero, M. Leturia, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, Jaime Garzia, Dani Santos, Patxi Retolaza, Kifu eta Pol-Pol Mendizale Taldea.

**Komikia eta marrazkiak:**

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

**Banaketa:** Txantxangorri Taldea

**Copyright:**  
BERRIGARA

**Tirada:** 3.000 ale

**Legu gordailua:** SS 50/ 91

**ISSN:** 1130-6599

**BERRIGARA** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

## PROTAGONISTAK

### PAKERAKO MARTXAK

Aste honetan heldu dira Bergarara Euskal Herri osoan zehar burutzen ari diren Pakearen aldeko bi martxak. Astelehenean Gernika Batzordeak antolatutako "Askatasuna eta Bakearen Txirringulari Martxa" Zumaiatik heldu zen eta, ongi-etorriaren ondoren, bazkaria egin zuten etorritako ehun bat ziklistek eta festara gehitu zitzaizkien bergararrak ere.

Asteartean Garraixi isilak "Bakea Plazara" lemapean oinez egiten ari den ibilaldia heldu zen. Oñati eta Bergara arteko etapa 40 bat lagunek bete zuten. Pla-



zara heldu eta pakearen aldeko manifestu bat irakurri zuten.

Bi martxak asteburkaeran iritsiko dira Gernikara: larunbatean Garraixi isilekoa eta igandean Gernika Batzordearena.

### Aste honetan Bergararik pasatu dira

## ITURRI ONETIK

### Osintxuko Jaiak erdibana: Jai Batzordeak eta tabernariak

Aurtengo Osintxuko Kofraixak antolatzerakoan buruauste dexente izan ditu Osintxuko Jai Batzordeak. Izan ere, ohizkoak diren lau egunak ezin izan ditu antolatu diru falta medio eta larunbat eta iganderako bakarrik prestatu ditu. Larunbatean, MCD eta Parabellum rock taldeak izango dira. Astelehen eta astearteko egitaraua, tabernariak prestatu dute eta EGAN ekarriko dute asteartean.

## ESAN DUTE

"Gertatutakoa asmatzea erreza da, hori garbi ikusten da, batez ere beldurrak eta desioak".

**VIRGINIA IMAZ**  
Tarota  
EUSKADI IRRATIA

"Torero euskaldunek aukera gutxi eta etorkizun beltza daukate, batez ere hemen ganaderiarik ez dagoelako. Euskal Herrian hiruzpalau korridatan toreatzera mugatu behar dira".

**JUAN LUIS BIKUÑA**  
Kazetaria  
EUSKADI IRRATIA

"Bilboko Udaletxeko aurrekontu hauek berebiziko garrantzia zuten eta azken minutuan bada ere, azkenean adostasunera iritsi gara".

**JUAN CARLOS LOIDI**  
Bilboko Udaleko Hazienda Zinegotzia  
EGUNKARIA

## LONBIDE OINETAKOAK



BIDEKURUTZETA 7,

Tfnoa: 76 10 57

BERGARA

## ELKAR

### ELEKTRAGINTZA

Mota guztietako instalazioak

76 00 00

BERGARA

## Deba Ibai bizi eta garbi baten alde

Orain dela hilabete, hau da, ekainean, bi fetxa aipagarri eduki genituen. Alde batetik "Lurrari buruzko konferentzia" Rio de Janeiron, eta bestetik Nazio arteko ingurugiroaren eguna. Hau dela eta agintariak prentsaurreko eta ekintza ugari burutu zituzten.

Egun hauek, ingurugiroari buruzko politika aldaketa baten abiapuntu bezala ulertu nahi genituzke, baina izango al du jarraipenik gerora? Ba al dute politikoek eta administrazioek orain arteko jarrerak alde batera utzi eta arazo honi benetako irtenbidea emateko asmorik? Nahiz eta denbora gutxi iragan, jadanik esan dezakegu usteak ustel bihurtu direla. Dena hitz ederretan gelditu da.

Gure aldetik gure herrietan ere geure arazo ekologikoak baditugula adierazi nahi dugu, eta gure lan eta zeregin guztiak hauen konponbideak bilatzeko, administrazioa behar bezala inplikatzearen ildotik joango gara.

Honetako bat Deba Ibaiaren egoera tamalgarria da. Herrialdeko kutsatuena izateaz gain, eta hau izanik arazorik haundiena, bere ubidean zehar hamaika arazorekin topo egin dezakegu, besteak-beste:

Ibai-Ubidearen kanalizazio basatiak, ertzetako landaretzaren desagertpenak, dragapenak, ubidean zehar eraikitzen diren oztopoak, azpiegitura

lan ugariak, isurtegi inkontrolatu eta kontrolatuetakoa lixibiatuen jarioak...

Betidanik aldarrikatu izan dugu, ibai garbi eta bizi bat, baina nola ulertu arazo guzti hauek kontestu honetan? Administrazioak zergatik ez du martxan jarri 1.986an prestatuturiko saneamendu plana?, ez al da hitzetik ekintzetara pasatzeko ordua iritsi?

Biharko egunean gure ibaiarekin gustora sentitzea nahi badugu gaur egiten dizkiogun gehiegikeriak baztertzen joan beharko gara.

## Eguzki

### "Escuela de Musica"

Urtero bezala, pasa den igandean, San Martzial Txiki egunean, ederki pasatzeko aukera izan genuen, jan eta edatekoa falta ez zelarik eta jolasez alaituta. Beraz, alde horretatik Bergarako Musika Eskolari eskertu beharrean aurkitzen gara, antolakuntza onagatik.

Bestalde, aurten gertaturiko gauza batek biziki atsekabetu gaitu, izan ere, egunean zehar ospatu ziren ekintza guztiak gaztelera hutsez egin bait ziren. Eta hau kontutan zianik, Musika Eskolak sinatu berri duen euskararen aldeko ituna, zeinekin ahal zen neurrian euskaraz egiteko konpromezua hartu zuen.

San Martzialen geunden guztiok euskaraz ondo ulertzen genuela ziur

gaude, baina hala ere eguneko ekintza guztien aurkezpena gaztelera egin zen eta euskaraz esan zen gauza bakarra, Otxote Txapelketako aurkezpenean esandako "jaun-andreok" izan zen, hori ere hirugarren maila batean, lehenik "ladies and gentlemen" ingelesez eta gero erderaz "señoras y señores" esan ondoren. Otxote Txapelketan ere, adin guztietan, abestu beharreko bi kantuetatik bat, beharrezkoa zena, gaztelera zena eta bigarrena, aukerakoa izanik, otxote bakar batek egin zuen euskaraz.

Hau ikusi ondoren, egun hartan zailantza handi bat sortu zitzaigun, guk duguna Musika Eskola ala Escuela de Musica ote den. Bestela, jaja horren erdalduna izatekotan, zergatik ez deitu "Día de San Marcial pequeño"?

Beraz, gure kritika ez da bakarrik Musika Eskolarentzat baizik baita han egonik, euskeraren faltaz ohartu ez ziren guztientzat.

## Musika Eskolako ikasle talde bat

### Oporretara goaz !!

Ale hau opor aurreko azkena duzu, beraz, irailera arte ez gaituzu zure etxean izango. Ondo igaro bakaziñuak eta ikusi arte!!

## Tiira ba!



## Josu Okina

**zinea**



**MORIR TODAVIA**  
Ostirala: 22.30.  
Igandea: 17.00, 19.30  
eta 22.15



**THE TWO JAKES**  
Larunbata: 22.30.  
Astelehena: 19.30.

**farmaziak**

- **Larunbata 18:** Guallar / Español.
- **Igandea 19:** Guallar / Irizar.
- **Astelehena 20:** Camacho / Ruiz.
- **Asteartea 21:** Puy / Morales.
- **Asteazkena 22:** Guallar / Español.
- **Osteguna 23:** Puy / Irizar.
- **Ostirala 24:** Guallar / Ruiz.

**Kontzertuak**

• **Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoa** eta **Bergarako Orfeoia** ostegunean, hilak 23 Mutrikuko Parrokian 22.30etan.

• **Orkestra Sinfonikoa** larunbatean, hilak 25, Espaloian 22.30etan.

**Bideoak**

• **Udaberriko Kontzertuaren** bideo emanaldia, uztailaren 21 eta 23an arratsaldeko 19.30etan Kultur Etxean.

• **Kirol bideo emanaldiak:**

- **Kirola eta natura** izenburuko bideoak asteazkenean, 22an, San Martin Plazan 22.30etan.

- **Euskal Bizikleta** ri buruzkoa, ostegunean.

- **Bergarako Kirola** izenburukoa, ostiralean.

**Jolasak**

• **Futbolin Txapelketa** larunbatean, 25ean, 17.00etan Gazte-txean

**Ogia**

• **Igandea 19:** Ogizun

**Aukeran**



▼▼ **Zinea ilargipean** Usondon larunbatean gaueko 10.30etan hasita. Santamañako jaien egitarauen barruan, "**No me pilles que no te veo**" komedia barregarria iksuteko aukera izango da, beti ere eguraldiak laguntzen badu.

**ELEKTRO**

ARENAZA C.B.

Montaje elektrikoak,  
automatismoak, e.a.

San Lorentzo 19,  
Tfnoa: 76 03 17 - 76 03 43



**ETXEBERRIA**

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65  
BERGARA

# ARGAZKI ETA POSTALEN II. LEHIAKETA

Oporrak bertan dauzkagula eta, aurten ere iaz egin genuen bezala ARGAZKI ETA POSTALEN LEHIAKETA antolatzea bururatu zaigu. Beraz, badakizu, bidali eizkiguzu nahiz


Osintxuko jaietan edota Usoako terrazan, nahiz Nepalera edota Benidormera egindako bidaiak zoragarrietan ateratako ARGAZKI eta POSTALAK. Hartutakoen artean gehien gustatzen zaigun argazki eta postalari sari bikain bana emango diegu.

Argazkiak ZURI-BELTZekoak zein KOLOREtakoak izan daitezke eta ORIGINALTASUNA eta KALITATEA, biak hartuko ditugu kontutan. Postaletan, oster, HIZKUNTZA ZUZENTASUNA eta ORIGINALTASUNA baloratuko ditugu, batez ere.

Anima zaitez, ondo pasau oporretan eta ez zaitez ahaztu argazkiak eta postalak IRAILAREN 8a (asteartea) baino lehen BERRIGARAKO erredakziora (Errotalde Jauregia, 20.570. Bergara) bidaltzen. Ondoko sarietako bat zurea izan daiteke!!.

## S A R I A K

Argazkia-Bideoa



# KIÑU

Barrenkale 35  
Tfnoa: 76 58 05



**KIÑUk emandako argazki-makina bikaina, argazki onenarentzat.**



**TXURINGO JATETXEAK emandako bi pertsonarentzako afari ederra, postal onenarentzat.**

**Enpresa ideiak**

Udalak enpresa ideiak aztertzeko aukera zabaldu die herriko 18 urtetik gorako langabetuei. Uztailaren 30ra arte interesatuak beren enpresa proiektuak aurkez ditzakete Enplegu Dinamizatzailearen bulegoan, lan guztien artean bi hautatuko direlarik. Proiektu bakoitzeko pertsona bat kontratatuko da ideia bideragarritasuna aztertzeko.


**Bainuetxeak**

Diputazioak irailetik abendura bitartean zaharrentzat bainuetxe ezberdinetan 15 eguneko egonaldia antolatu ditu. Interesatuak izena eman dezakete astelehen, asteazken edota ostegunetan 10.30etatik ordubaterara Zaharren Egoitzan.

## Bergarak ibilgailuen inspekziñorako tailerra izango du aurki

Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak gure herrian izango den Ibilgailuen Inspekzio Teknikorako tailerraren adjudikazio baldintzak plazaratu ditu epe laburrean, proiektua eta obren lizentzia jadanik onartuta baitaude. Proiektu honen arabera, 255 milioi pta. inguruko inbertsioarekin, tailer honek San Lorentzoko industrialdean, Soraluze Kooperatibaren ondoan, 4.993 metro karratuko azalera beteko luke.

Victoriano Gallastegi alkateak dioen bezala, *"inbersio fuertea da hau eta, herritarrei azterketa erosoago egitea suposatzeaz gain, duda barik bizia emango dio herriari"*. Industria Sailak Euskal Autonomi Elkartearen honelako bizpahiru tailer egiteko asmoa du eta



Bergarako Gipuzkoan egingo litzatekeen bakarra genuke. Horrez gain, egin beharrekoak eta momentuan dauzkanak (Urnieta, Usurbil) kontzesio bitartez (Mirandakoa bezala) partikularrei uzteko asmoa du Jaurlaritzak.

Hori dela eta, kontzesioaren baldintzak publikatzea besterik ez da fal-

ta akordioa lortu eta obrak hasteko. Lehiaketa publikora atera ondoren, eraikuntzaren finantzaketa eta esplotazioaren baldintzak finkatuko lirateke. Alkatearen esanetan, *"esan daiteke tailerra berehala jarriko dela martxan, konstruktioari dagokionez ez baitu inolako zailtasunik"*.

## Herri ordenazioa

Bergarako Udalak hirigunearen ordenazioa egin eta lurren erabilera finkatzeko beharrezkoak diren arau subsidiarioak egin berri ditu. Gerora begira egiten den ordenazio hau modu egokienean egiteko asmoz, Kultura Zerbitzuak, mende hasieratik 1.970 inguru arte hirigunea nola zegoen agertzen den argazki edota *tomavistasekin* ateratakoak dituztenei dei egiten die, hauek erabiltzen uzteko. Lanerako oso baliogarria izango diren argazkiak uzteko prest daudenek, Kultur Etxera deitu (76 44 46) edota bertara jo dezakete uztailaren 25a baino lehen.



### TOKI-ONA Bodegoia-Taberna

Eguneroko janariak -  
Txitxizotzak-Kazolatxoak-  
Txabierroak

Matxiategi 1, Tfnoa: 76 39 53

Atsedeen zentrua

### LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g - Tfnoa: 76 05 01

Mugica

Gozotegia

Artekale 3, Tfnoa 76 10 34

□ **Santiauak**

Basalgo auzoak Santiago jaiak ospatuko ditu hurrengo astebukae-ran. Ostiralean, uztailak 25, afari herrikoia izango da, larunbat eguerdian txirrindulari igoera alebinentzat, pelota partiduak 12.30etan, dantzari bikoteen saioa 6etan eta ondoren aizkolari desafioa eta erromeria Manu Iztuetarekin. Igandean, meza 12.30etan, umeentzako jolasak, ondoren soka-tira eta pelota partiduak eta, amaitzeko, bazkari herrikoia 2.30etan Manu Iztuetak alaituta.



**Santamañak 92**

Ostiralean arratsaldeko 7etan etxaleroak eta kanpai hotsek Santamaña jaien hasiera iragarriko digute. Hanka luzeak eta buru-haundiak izango dira 7.30etan, 9etan makalaren jasoera eta 11etan dantzaldia *Ibaiak* taldearekin.

Larunbatean, hilak 18, goizeko 9 terdietan ibilaldia aitonentzat, kukainak Matxiategin 12etan, mendi bizikleta lasterketa 4retan, herri meza 8etan, Aritzetaren kontzertua, zinea Usondon 10etan eta gaueko 11etan *Estrellas Azules* taldearekin camp

dantzaldia Matxiategin.

Igandean, bukatzeko, herriko txistularien kalejira 9etan, plater jaurtike-ta Fagorren 10etan, Udal Bandaren kalejira, herri meza eguerdian, Bandaren kontzertua 12.30etan, ordubatetan salda eta txorixua banatuko dira, *Xamatzen* dantza saioa ondoren eta, arratsaldetan, aitonetan finalak 3retan, txirrindulari saria 5etan, txokolatada Usondon, 6.30etan poniak umeentzat Santamaña inguruan eta 8 terdietan, bukatzeko, haurren tanborrada burutuko da.

□ **Astialdia**

**JARDUN Elkarteak** astialdiko ikastaroak antolatu ditu 18 urtetik 20 urtera bitarteko gazteentzat. Helburua, astialdian euskararen lanketa suspertzea eta oinarrizko tekniken sakontzea litzateke, izaera ezberdineko hainbat gai aztertuko direlarik. Ikastaroak irailetik martxora iraungo du, JARDUN-eko bazkideek 12.000 eta gainontzekoek 20.000 pta. ordaindu beharko dituztelarik. Matrikula epea uztailaren 24ra arte egongo da zabalik JARDUN Elkartearen (Kultur Etxean).

**Berrigarak**

publizitateaz arduratuko litzatekeen pertsona bat eta zenbait kazetaritza lan egingo litzuzkeen beste bat hartu nahi ditu. Interesatuak Berrigarara (76 03 97) dei dezakete uztailaren 27a baino lehen.

**Bergarako Atletismoari**

buruzko informazioa edota argazkiak dituztenei **BERRIGARA**-rekin harremanetan jartzeko eskatzen diegu (76 03 97), horren historia argitaratzeko asmoa dugu ta.

**LARRREA**

**TABERNA**

Kale Barren 17  
ANTZUOLA

**ETXAGI**

**Jafetxea**

Afariak - Bataioak  
Jaunartzeak  
Eguneko menua  
Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

**LARRAÑAGA**

**eta ZUBIA**

**Banatzailleak**

**Errioxako ardoak, olioak,  
esnea, lejiak**

Martokua 32, tfnoa: 764594

**MINER**


**Ardo onak,**

**ardoa jakina**

Biltegia: Tfnoa: 76 59 89 BERGARA







## Antzuolan ere jaiak

Ostegunean hasi ziren Antzuolako jaiak jarraipena izango dute astebukaeran ere. Ostiralean esaterako, besteak beste, umeen tanborrada izango da arratsaldeko 7<sup>terdian</sup>, *Gaubela* taldearekin dantzaldia 10<sup>terdian</sup>, otxote lehiaketa 12etan eta rock jaialdia *Amorru*, *Zakarraketa* *Parabellum* taldeekin 11.30etan.

Larunbatean goizeko 10etan txistularien kalejira 10etan, duatloi txikia jokatu da 11etan, Bergarako Musika Bandak kalejira eta ondoren konzertua eskeiniko du eta,

arratsaldera pasatuz, Mairuaren agertaldia izango da 6etan, herriko dantzariak 7etan, pelota partiduak jokatu dira gaueko 10.30etan eta, ordu berean, *Beleak* taldeak alaituriko dantzaldia.

Igandean, berriz, txirrindulari proba jokatu da goizeko 9etan, eguerdiko 12.30etan kalejira burutuko da, Iparraldeko sukaldariak gertatutako zikiri jana ordubietan, 6.30etan herriko kirolari-ei omenaldia egingo zaie, gaueko 10etan dantzaldia EGANekin eta goizaldeko 2.30etan kalejira.

## Txinpartak

✓ **San Martinetako danborrada** antolatzen kultur talde eta elkarteei dei egiten zaie asteazkenean, hilak 22, arratsaldeko 7etan Udaltxean egingo den bileran parte hartzeko.

✓ **Eguzkik** Deba Ibaiaren XIV. Bizikleta Jaietsiera iragarri du iganderako, hilak 19. Bergaratik 10.45etan egingo da irteera..

✓ **1.207 eta 4.765** zenbakiak sarituak izan dira Lokatzak Euskal Bizikletaren alde antolatutako zozketan.

✓ **Herri Batasunak** dei egiten die bere jarraitzaileei ostegunean, hilak 23, 7etan Arrano Zaharrean egingo den bileran parte hartzeko.

✓ **Zergabilketa Ejekutiboa** Udaleko Kontuhartzaitzako bulegoetan egingo da; 8etatik ordubetetara astelehenetik ostiralera eta 4retatik 5.30etara astelehen eta asteartetan.

✓ **Udal liburutegia** abuztuaren 24ean zabalduko da eta hilaren amaiera arte goizetik bakarrik egingo da zabalik 8etatik ordubetetara.

✓ **Plater tiraketa** lehiaketa jokatu da larunbatean, hilak 18, Elgetako Kiroldegian arratsaldeko 3etan.

✓ **Ehiza txakurren** lehiaketa ere izango da Elgetan, igandean, goizeko 9.30etan Asentzian.

# URKIOLA

Gizon eta  
emakumezkoen  
moda

Bidekurutzeta 42,

Tfnoa: 76 16 48

BERGARA

**TOKI-EDER**  
Taberna

Pintxoak eta  
eguneko bazkariak  
Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

**KONDE**  
PANADEROKUA



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57



# Bergararik Italiara

## 29 pintore bergararren lanak Ortonovon ikusgai

Bergarako tradizio piktorikoa aski ezaguna da inguru hauetan, gure herriak azken hamarkadatan maila haundiko margolariak eman ditu eta. Baina pintoreak eurak dioten bezala, sekula ez zaio merezitako garrantzia eman. Horregatik, eta Bergarako artisten iharduera bultzatzea helburu izanik, hemengo eta Italiako Ortonovo herriaren arteko kultura harremanak indartzeko aukera izan dute pintore bergararrek. Astebukaera honetan irekiko da Ortonovon bertan, Bergarako 29 pintoreren lanen erakusketa, eta datorren urteko otsaila inguruan italiarren lanak ikusteko aukera izango dugu bergararrok.

Ostegunean irten zen Bergararik, larunbatean erakusketa ofizialki irekiko duen agintari eta pintorez osatutako ordezkaritza. Victoriano Gallastegi alkateak, Andoni Larrañaga eta Koldo Pereira zinegotziek, Luis Lascurain eta Alvaro Arregi italiarrekin elkartrukearren bultzatzaileek, Im-

nol Bolinaga senatoreak eta Jose Mari Ugalde pintoreak erakusketaren aurkezpen ekitaldi ofizialean Bergararako iragana eta gaur egunaren berri emango dute.

### Diren guztiak

Uztailaren 18tik irailaren 7ra arte irekita egon-

go den erakusketan, 29 pintoreren 87 lan izango dira ikusgai, margolari bakoitzeko 3 lan hain zuzen ere.

Abdon Juaristi eta Bingen de Pedro erakusketan parte hartzen duten pintoretariko birekin izan gara eta eurok esan digutenez, *«erakusketa honetan, gutxieneko*

*maila duten Bergarako pintore guztiak daudela esan genezake. Bat edo beste falta dira baina eurok nahi izan ez dutelako izan da. Bestalde, adin eta estilo ezberdinetako 29 pintoreren lanak biltzen ditugu erakusketa honetan, badaude bizi-modua pinturatik ateratzen dutenak edota Arte Ederrak ikasten ari direnak eta baita afizioz margotzen dutenak ere. Estilo aldetik mota guzti-etako koadroak aurkitu daitezke, gure artean amankomunean daukagun gauza bakarra Bergarakoak izan, bizi edota gure lan artistikoa Bergaran egiten dugula da.*

Esan behar da, bestalde, abuztuaren lehen egunetan erakusketan parte hartzen duten margolariek eta hauen senitarteko eta lagunek, Italiara abiatuko direla Ortonovo eta beste hiri batzuek bisitatuko dituztelarik.

Ortonovo, Genovatik 200 kilometrotara hegoaldera, kostaldean dagoen 5.000 biztanleko herria da eta oso ezaguna inguruetan dauden harrobiengatik.

### Esperientzia aintzindaria

Pintura erakusketa honekin Ortonovorekiko hartu-emanen ekin eta etorkizunean etor daitezkeen beste elkartrukatzeko

**Taberna Kafetegia**  
**EHIZTARIAK**  
**LOS CAZADORES**  
Kafea da gure berezitasuna  
Zubieta 26, BERGARA

**Amets**



**Zerbitzuak haundiagotuz**  
**HERGO karabanen**  
**banatzailea**

Informazioa: ☎ 78 25 92 / 78 19 50

**AMETS Tailerrak**  
Berezano Auzoa • OÑATI

batzuentzako bidea egin nahi da, lehen aipatu dugun bezala. Esperientzia aintzindaria da gure herrian, beste arlo batzuetan, futboleko esaterako, atzerriko herriekin horelakoak egin badira ere, margogintzan egiten den lehena da eta.

Ortonovorekiko hartu-emanei ekiteko aukera orain dela urte batzuk, Arrasaten eskultura simposiuma egiten zen garaietan, hain zuzen ere, sortu zen. Garai hartan, Luigi Corsanini Ortonovoko semeak Arrasatera eginitako bisitaldian, Bergarako pintoreen lana gertutik ezagutzeko aukera izan zuen eta gure herriak duen biztanle kopurua kontutan izanda, hainbeste eta hain kalitate handiko pintoreak egoteak erabat harrিতuta utzi zuen.


### Bergarako tradizio piktorikoaren erakusketa adierazgarria

Uda honetan Italian egingo den 29 pintore bergararren erakusketa, gaur egungo bergarar margogintzaren erakusketa adierazgarria dela esan genezake.

Eta Bergarako tradizio piktorikoaz hitzegiterakoan, gaur egungo Juaristi, Azkargorta, Okina, De Pedro eta Muniategiandikoetxearen, batzuk bakarrik aipatzearen,

maisua izan diren Juan de Telletxea, Nicolas Mujika, Eustakio Agirreolea, Simon Arrieta, Fernando Azkargorta edota Moises Eguren, ezin ditugu ahaztu, eurak izan bait dira Bergarako margogintza Euskal Herriko eskola aipagarrien artean jarri dutenak. Bergarako pintura eskolari buruz hitzegiterakoan, zera adierazi digu Abdón Juaristik: *«Ezin dezakegu esan Bergarako pintore eskolarik dagoenik, ni eta nirekin batera ibili ziren pintoreen arteko ezberdintasunak, nabariak dira. Gure lanean ez dago Euskal Herriko beste pintore batzuekin bereizten gaituen ezaugarri berezirik»*. Bingen de Pedrok, bestalde, zera gehitu du: *«ez belaunaldi ezberdinen artean, ezta belaunaldi bakoitzeko pintoreen artean ere, ez da somatzen ezaugarri amankomunik»*.

Simon Arrietak gaur egungo pintoreengan izan duen eragina aipatzerakoan: *«hemengo pinturaren gainean hitzegiten dugun bakoitzean beti aipatzen dugu Simon Arrieta, eta bergarar pintore ospetsuena izan dela ukatu ezin bada ere, mende hasieran oso ezaugarria izan zen Tellaetxe eta Moises Eguren, azken hau gure belaunaldikoei erakutsi zigunagatik batez ere, goraitatuko nituzke»*.



Ortonovon izango diren 29 pintoreei buruzko informazioa jasotzen duen katalogo eder bat argitaratu da.

## 29 pintoreak

- Xabier Agirre Unamuno. Bergara 1.955.
- José María Aguirre Zenitagoya. Bergara 1.945.
- Pello Alberdi Zuazubizkar. Elgeta 1.958.
- Juan José Altuna Akizu. Arrasate 1.943.
- María Paz Alustiza Larrañaga. Bergara 1.945.
- Mikel Araiztegi Uribealgo. Bergara 1.955.
- Fernando Arenaza Ecenarro. Bergara 1.952.
- Antonio Arrillaga Ibarluzea. Elgoibar 1.946.
- José Ramón Ayastuy Agirre. Bergara 1.940.
- Ricardo Azkargorta Zelala. Bergara 1.958.
- Juan Balentziaga Larrañaga. Bergara 1.960.
- Bingen de Pedro Barrenetxea. Bergara 1.961.
- Karlos Gallarraga Aranzabal. Bergara 1.968.
- José Ramón Gantxegi Gallastegi. Bergara 1.947.
- Jesús María Garitano Sánchez. Bergara 1.946.
- Iñaki Iturbe Beldarrain. Bergara 1.972.
- José Antonio Iza Unamuno. Bergara 1.961.
- Abdón Juaristi Legorburu. Bergara 1.948.
- Luis Lascurain Pérez. Bergara 1.951.
- Daniel Laskurain Arellio Aurtena. Bergara 1.966.
- Mikel Lazpiur Lamariano. Bergara 1.942.
- Francisco Leturia Epelde. Bergara 1.924.
- Ignacio Moreno Mesonero. Bergara 1.960.
- Manu Muniategiandikoetxea Markiegi. Bergara 1.966.
- Josu Okina Latorre. Bergara 1.955.
- Santos Okina Latorre. Bergara 1.947.
- Miguel Okina Salsamendi. Bergara 1.924.
- José María Ugalde González. Bergara 1.946.
- Ion Andoni Urisabel Aseginolaza. Bergara 1.972.

## JUBILATUEN TABERNA

• Bazkari eta afariak

Tfnoa: 76 62 71 ANTZUOLA



zumelaga  
JATETXEA

San Antonio 5 BERGARA  
Tfnoa: 76 20 21




BARRENKALE 4 Tfnoa: 76 18 14

Ramon Amasorrain, Musika Eskolako presidentea

# "Gure filosofia musika indartzea da"

92-93 ikasturtean LOGSE legeak musikarengan izango duen eragina azaltzen digu Ramon Amasorrain Musika Eskolako presidentea. Zuzendaritza Batzordeak musika eskola bezala jarraitzeari eutsiz, kontserbatorio bihurtzeko ideia baztertuz.



**- Zein izan da erabaki horren arrazoi nagusia?**

- Lege honek irakaskuntza "reglada" (kontserbatorioak) eta "ez reglada" (musika eskolak) desberdintzen ditu. Kontserbatorioetan musika beste edozein karrera bezala irakatsi eta ikasiko litzateke eta musika eskolen eginkizun nagusia, berriz, musika zaletasun bezala hartzen dutenei

erakustea. Gure filosofia azken ildo honetatik doa.

**- Eta zein izango da orainarteko sistemarekin konparatuz al daketarik nabarmena?**

- Azterketa ofizialik ez dela egingo, ez da titulurik emango, orainarte er-taineko titulua eskeini bait dugu. Orain, gugana etorriko den jendea musika benetan gustatzen zaiolako izango da eta

jende horri moldatuko gara kalitatea ahaztu gabe. Harrobi eta talde ezberdinak bultzatu nahi ditugu eta ikasleen kontrola eramaten jarraituko dugu.

**- Hainbat kurtso desagertzean irakaskuntza sistema bera aldatu beharrean aurkituko zarete...**

- Sistema berri honekin ez dugu adinarekin mugarik eta solfeoarekin

hasi beharrean aukera izango dugu teoria eta praktika gehiago tartekatzeko, irakaskuntza astuna ahaztuz. Zentzu horretan, jende gehiagok izango du musika ikasteko aukera.

**- Profesionalak iritetzeko posibilitatea ere badago...**


- Kapazitatea daukana, nahi izanez gero, kontserbatorietara sartzeko prestakuntza emango diogu. Baina kontserbatorio batek, hemen, ez du merkaturik eta gure zeregina, batipat, musika erakustea izango da.

**- Bukatzeko, amaitu berri den kurtsoaz, zer nolako balantzea egingo zenuke?**

- Aurreko ikasturtean antzerako balantzea, aprobaturien portzentaia berdintsu mantentzen da eta talde ezberdinen emanaldiak ere arrakastatsuak izan dira. Pozik egoteko arrazoiak ditugu.

**SURPE**  
Taberna

Erdiko Plaza, Tínoa: 76 64 97  
ANTZUOLA



**JAUJA KIROLAK**  
Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95

**Aldoka**  
**Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi, BERGARA

**BERGARA**  
Karrozeria

Txapa - Pintura

Tfnoa: 76 12 31

Zubieta 46  
Bergara

**K**abia

*Altzariak*

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa" 79 27 70 ARRASATE

# Santioko

## ermitta Basalgo auzoan

**B**asalgok auzo bat egiteko gauzarik garrantzitsuenak izan ditu: eskola, boloak, elkarteko labaderoa, bolatokia, edaritegia, ermita eta talde bat izateko asmoa. Oraindik gelditzen dira eliz inguruan, Iribeko iturrian, labaderoaren arrastoak, eta bertako harri batek 1.611garren urteko zenbakia idatzia dauka.


Joan den gizaldian, San Prudentzio eta Osintxukoekin batera, Basalgok ere eskatu zuen eliz zerbitzu gehiago, Santamañatik urrutiegi zegoela eta. Apaiz bat bertan bizitzen ipiñi zuten, eta orduan egin ziren apaiz-etxea, sakristauarena, bataioko ponte, konfesionarioa eta abar.

Erdiko aldea barrokoa da eta bertan XVgarren gizaldiko Santio pe-

reginaria dugu, makil, zakote eta guzti, eta XVI.go Andremari eder bat ere bai. Alboan XVgarrengo Amabirjina, ondatua eta geroztik arropaz jantzia, "milagrosaren" fama daukana. Bere aurrian askotan pitzen dira kandelak; lehen Soralezetik ere etortzen omen zen jendea mesedeak eskatzera. Eskubi aldera romanista tankerako Aingeru Guardako irudi egokia, eta gainean zaharragoko San Migel.

Bergarako beste auzoetara bezala urtero joaten ginen maiatzean baserri baserri konjuroak egitera, orain dela 20 bat urte arte. Ni, Basalgora, nola ez, eta ondoren Goimendiko baserrietara Soralezetik, Sagar-errekant sartuta.

Auzoan gordetzen du-



te ermitako liburu bat joan den gizaldiaren hasierako gora-beherekin, eta abar. Baina izango zen zaharragoko beste bat, denak bait zuten, eta bere bila Bizkaitik barrena ere ibili nintzen asmo haundienarekin, baina ez nuen aurkitu.

Auzoetako ermitetan "obrak" egin behar direnean "auzolanetan" egin ohi dira. Behin, teilatu berria ipintzen ari zirela Santioko ermitan, ni Gar-

beko mendi tontorrean nintzen, eta ikusi nuen teilatu eta kanpai gaineko gurutzea eguzkiaren argia berriztatzen, ispilua-ren modura. Gurutzeak kristal zatiak apropos itsatsiak zeuzkan eta hutsuneak berriro bete zizkioten berriekin. Beste izen askoren ondoan, Kristori Eguzki Berria deitzen zaio.

*Imanol Sorondo*

# SANTOS

## IRRATI - TB



Mahasterreka 2

**TB-Soinua-Bideoa**  
**Antena instalazioak**  
**Kanal Pribatuak**  
**Sukalderako altzariak**  
**Argiztapenak**

Tfnoa: 76 26 10


BERGARA

# KIZKUR



**Ileapaindegia**  
**Solariuma**

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32



BERGARA

Tfnoa: 76 25 99

## Zubiberri Sagardotegia

- Eguneko menuak
- Kazuelitak

San Anton, Tfnoa: 76 41 06



**ETXE  
AUNDI**

Negozio bazkariak  
E z k o n t z a k  
B a n k e t e a k

Torre Auza 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI


**FS**  
oto istema

### ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta bode tako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50

## Norekin zoaz oporretara?



**Fernando Agirre**  
32 urte, langilea

Ez daukat planik eta gainera, lana egin beharko dut seguruen. Aurten, beraz, herria zaintzen geratuko naiz.




**Maite Retegi**  
30 urte, langilea

Senarrarekin eta semearekin Donostiara joango naiz.



**Irene De Dios**  
9 urte, ikaslea

Lagunekin Getariako kanpinera joango naiz hamabost egunetarako.



**Arkaitz Arana**  
17 urte, ikaslea

Kuadrilarekin joango naiz, baina ez dakigu Galiziara edota Laredora joango garen.



# LARRAÑAGA

## Autogidarien Eskola

Artekale 22  
Tfnoa: 76 16 63  
BERGARA



## General Motors Itxaropen bat

General Motors multinazionalak oneritzia eman berri dio Amorebietako kotxe lantegiari. Urtean 150.000 bat kotxe deportibo egingo lituzke, bai coupés, eta baita kotxe arrunta eta «todo terreno»-en arteko ibilgailuak ere.

Kontu hau guztiz ziurtatu ez bada ere -firma horretako arduradunek proiektuaren hainbat zehaztasun egiteko bisita bat egitekotan bait dira-, berri hau gogo onez hartu da euskal ekonomilarien inguruan.

Aipatu beharreko lehenengo gauza, inbertsio gogorra izatean enpleguaren gain izango lukeen eragin positiboa, eta ez bakarrik inguruko enpresenganako eragin zuzena, euskal ekonomiaren sektorerik garrantzitsuenetarikoa baita automobilen inguruko industria; izan ere 40.000 pertsona dira honetan lanean dihardutenak. Bigarren eragina, inbertsio honek euskal industrian sortuko duen produkzioaren dibersifikazioa, teknologia aurreratuagoa eta espezializazio eta kalitate haundiagoa eskatzen bait ditu.

Eta azkenik, azpimarragarria da, multinazional batek Euskal Herrian kokatzeko hartutako erabakiak Euskadiren imagina (azken urtetan gutxietsia) alda dezakeela. Guzti honetaz gain, aurrerago beste produkzio sektore batzuk ere gure herrian inbertitzeko bultzagarri gerta daiteke eta, azken finean, gaur egun kinka larrian dauden azpisektore batzuren eragin kaskarra gaudituko lukeen industri sare kompetitiboa bultzatuko luke.

**Jose Luis Garitano**



## ALAk babes zaitzatela

Penintsulara iritsi ezinik geratu eta miserian bizi diren senitartekoentzako diru-apur batzuk poltsikoetan dituztela, automobil zaharretan sartu eta eguzki galdatan milaka kilometro egin beharrean, penintsulakoon mesprezua jasaten dutela, halaxe igarotzen dira uda guztietan milaka marrokiar. Aurtengoan, berriz, diotenez Frantziako kamioizaleen eta nabiera baten grebagatik, marrokiarrak kiskaltzen ari dira Algecirasen, 50º tan, auto barruetan, ilara luzeetan itsasuntziaren zai dauden bitartean eta agintariak, magrebiarren beharrezanik behinenei erantzun ezinik.

Kiskal daitezela eguzkitan marrokiarrak! Badirudi hala pentsatzen duela zenbaitek, Hirugarren Mundua Lehenaren barruan ere badagoela ahaztu izan dutenak, edo, bestela, hain europarrak izaki, lehen mailako hiritar bihurtu gara. Ala, ahaztu egiten al dute agintari politiko horiek oraindik asko ez dela beren herrikideak zirela mesprezu bera jasaten zutenak? Politikoez amnesia dute, berriz ere.

Politiko horiek Expo erakutsi zioten orain dela gutxi printzeari, emigranteenik dibisak bakarrik nahi dituen Hassan II.a erregearen semeari, oraindik ere nazio-arteko komunitate guztiaren oneritziarekin erresuma feudal bat duen Hassan II.a erregearen oinordekoari.

**Juan Antonio Migura**

**ORTZI**  
Erretegia

ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68

Paper pintatuak - Pinturak

**A. ZANGITU**

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA  
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE

**LAGUN ARO**

ASEGURUAK

Agentea:  
RAMON IRAEGUI



ORDEZKARIA  
BERGARAN

Ramon M. Lili 6  
Tfnoa: 76 23 30  
Faxa: 76 41 54  
20.570 BERGARA



**VID-ART**

Bidriera artistikoak

BIDRIERAK - MURALAK -  
ISPILUAK-KRISTAL  
BISELATUZKO  
ATEAK - etab.


Azal eiguazu zure ideia  
VID-ARTEk  
egingo dizu.

BELANBIDE, Z/G - 20.570 BERGARA  
Tfnoa: 76 23 30 / 76 41 54

# Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74



## Ohorea jokoan


Igandean, Antzuolan egingo den bazkari herrikoia-aren ondoren, argazkian agertzen diren gazte hauek (argazkian oraindik 2 mutil eta 3 neska falta dira) bere biziko erronka garrantzitsuenetarikoa izango dute, dudarik ez. Hain zuzen ere, antzuolarren aurka, ETBko Herriko Plazan saioaren formula jarraituz, hil ala biziko lehia jokatu dute. Eta hor ari dira, besteak beste, kultur gaiak errepasatu, asto lasterketarako estrategia zehaztu eta txingatarako probarako ere gogor entrenatzen. Guk, hemendik zorterik onena opa diegu eta, era berean, epaileen aldetik lapurretarik ez dadila egon eskatzen dugu. Animo mutilak!!

# ANDUZU

**ERAIKUNTZA  
MATERIALEN  
BILTEGIA**

- Azulejo erakusketa
- Onduline • P.V.C.
- Blokeak • Pinturak
- Adreiluzko botelilatokia
- Mailazua • Garraioak egiten ditugu

Telleriko Lana Pol/Ind. San Juan  
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41  
Faxa: 76 00 58 BERGARA



## Hagin klinika

Idoia Iriarte Irureta

Artekale 1, 1. C. Tfnoa: 76 01 65

# ELADIO OINETAKOAK

Oinetako konponketa

MATXIATEGI 2,

Tfnoa: 76 54 60

BERGARA








**San Martzial errepikatzen**

Antza denez, **Musika Eskolako** ikasle eta irakasleek ez zuten nahiko izan San Martzial egunarekin eta joan den igandean jai hau errepikatu egin zuten ermitaren inguruko zelaietan. Azken urteotan bezala, herriko musikazale hauek **San Martzial Txiki** egunarekin agur esan zioten aurtego kurtsoari eta han izan ziren jolasak, otxote lehiaketa, mus txapelketa... eta beste hainbat joku ta ekitaldi, bazkarirako 130 bat lagun bildu zirelarik. Esan bezala, juerga eguna... baina musika inola ere ahaztu gabe.



**Liburutegi berri bat**

Badirudi Bergaran liburutegi berri bat izango dela laister. **UNEDeko** departamentu ezberdinetan dauden hainbat liburu ezberdinak liburutegi baten biltzeko asmoa omen dute UNEDeko arduradunek eta. Printzipioz, bertan diren 20.000 liburu inguru erabiltzeko aukera izango lukete ikasle eta kontsultaren bat egin nahi dutenek. Udal liburutegian daukagun ondareari gehitu beharreko kultura...

**Zertan dibardute ba?**

JUAN CARLOS LOIDI



Bilboko Udaletxean EAJko zinegotzi eta Hazienda eta Ekonomia batzorde-buru den bergarar hau albiste iturri izan da egunotan, sozialistekin duten paktoa arriskuan egon baita azkenean onartu izan den aurrekontuaren erruz.

JON JAUREGI



Bergarako Igeri Elkarteko 15 urteko igerilari honek denboraldi bikaina burutu eta 92-93 ikasturtean Federazioak Santurtzin duen Errendimendu Haundiko Zentruan ikasi eta entrenatzeko beka eskuratu du.

**IGARZA**  
MERZERIA  
LENZERIA

D. IRALA 5  
Tfnoa: 76 24 88 BERGARA

**SUBIJAI**

Gazteentzako moda

Irlizar 1, Tfnoa: 76 42 41

**FERNANDEZ**



Oihal puskak  
Oihalak

San Antonio 3  
Tfnoa: 76 22 93

Ibargaral 2  
Tfnoa: 76 53 22

## Umore giroan

### Ura edaten Ardantzan

Egun baten, ikusi dau "Txanboliñ"ek "Kaporala" Ardantzako ura eraten.

- Ze, "Kaporala" ura eraten?

- Bai, atzo au eifñ banajuan, oifñ ez najuan eifñ biarrik eukiko. Ta eu nora oia "Txanboliñ"?


- Mendira, ia ibilixaz, meetzen naizen.

- A Txanboliñ, meetzera mendira! Etorri ari ni apopillo nagon lekura: an meetuko aiz laister!

\* \* \*

### Pagatzekotan, badagon leku oberik

Azken urtietan, "Kaporala" Santañesen, ia jausten zeguan basarri baten bizi izan zan.



Burutik be ez jakon pasau zeozer pagatzerik errenta moduan. Orrela gauzak, egun baten baserriko etxeoandriak esan detsa:

- Zu, Jazinto, errenta moduan zeozer pagau bizkozu...

"Kaporala" k:

- Pagatzekotan badaonaz leku obiak. Por ejemplo, an daon "Hotel

Pedro Zelaia

## Antzinako kontuak

### Artzamendiko dorrea

Orma bakoitzean 12 bat metrotako luzera duen planta kuadrangeluarreko eraikina da; bertako orma sendoak, barrukalde harlangaitzekoa duten harlanduz estaliak beheko aldean eta silarejo eta harlangaitzaz goikoan, denboran zehar izan dituen berreraiketa ezberdinen erakusgarri dira. Berrez, gerra zibila iritsi bitartean bizileku gisa erabili zen, eta gaurregun hondar multzo bat baino ez da, mendiko maldan kokatua, Bergaratik Antzuolarako bidea begipean hartzen duena.

Alboko orma batean zabalera haundiagoa duten bi gezileihoak alde batera utzirik, baoak urriak eta arku zorrotzekoak dira; hauek aipa litezke: fatxada nagusian dagoen dobelalaia haundiko portada, batetik, (Hegomende-

balerantz begira dagoena), goikaldean eta bi aldeetan harri bakarrean tailatutako bi leiho txiki dituen, eta beste alboan mantentzen diren bi bao bikoitzak, bestetik, arku zorrotz samarrekoak eta barrukaldean aukia ormaratua dutenak. Orobat, bada harburu sail bat defentsa beharrezkoa zenean zurezko elementuak altxatzeko erabilio zena. Barrukaldea suntsituta dago ia bere osotasunean.

Eraikuntz forma hauek indarrean jarraituko dutela oraindik denbora luzez kontutan harturik eta bestalde, elementu estilistiko aski zehatzik ez dagoenez, zaila gertatzen da obra hau kronologikoki kokatzea. Arpalen ustez, XIV. mendearen bigarren zatikoa.

M. J. Aranburu eta  
J. Gil Masa



Ziripot

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

ITXASMENDI

Taberna

Barrenkale 36  
Tfnoa: 76 50 64  
BERGARA

ANTIA

HARATEGIA

URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi  
eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09


MAKAILO

Makailau  
kazuelak  
gertatzen ditugu

Ibargarai 15

FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24



**Pintxoak, eguneroko menua eta karta bereziak ditugu  
Betiko eta oraingo sukaldaritza**

**ARGAZKI**

**Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66**



## **GALDE DEBALDE**

**Ibai Gomez**

Aurreko GALDE DEBALDEko erantzun zuzena hau zen:  
Giltzak dira Bergarako harmarran agertzen den San  
Pedroren ikurra.

**IBAI GOMEZek irabazi du ARGAZKIk emandako SARIA.**

**ZORIONAK irabazleari!!**

**Eta besteok animatu, eta erantzuna eman aste honetako galderari!**

**Uncelay**  
**HARATEGIA**

**GURE BASERRIAN  
HAZITAKO TXAHALAK**


**Etxean egindako txorizo,  
saltxitxa, odoloste, e.a.k**

**lbargarai 16, Tfnoa: 76 00 45 / 76 37 77**


**Zubikua**

**JANTZIDENDA**

**Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16**



IBAI GOMEZek jaso du aste honetan ARGAZKIK emandako saria.




Hurrengo Galde Debaldeko saria URCELAY harategiak emango du.

# Galde Debalde


## Aste honetako galdera:

"Le Tour" gora, "Le Tour" behera, nahiko lanekin gabiltza azken aldi honetan, batez ere Indurainen krono apurtze ostean. Aurtengo ospea Donostiatik hasteak ere emango zion Tourrari, baina hau ez da Hego Euskal Herritik dabilen lehenengo aldia, aurreko baten Bergaratik ere pasa zelarik. Hau da beraz galdera:

**Zein urtetan pasa zen Tourreko etapa bat Bergaratik?**



---



---

**Izena** \_\_\_\_\_ **Abizena** \_\_\_\_\_ **Tfinoa:** \_\_\_\_\_

**OHARRA:** Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke

# Ion Lazkanok ezin izan du Drangoko Dorreetako gailurra zapaldu

## □ Triatloia

Karlos Baleztena antzuolarrak 6. postua lortu zuen joan zen igandean Donostian jokaturako Triatloi Txapelketan.

## □ Atletismoa

Mikel Uribesalgo eta Miguel Sancho bergarrek larunbatean Anoetan jokaturako den Euskadiko Kluben Arteko Txapelketan parte hartuko dute Arrasate Atletiko taldearekin.

## □ Ziklismoa

Agustin Sagastik (Kaiku Gurelesa) irabazi zuen larunbatean Elgetan jokaturako Euskadiko Mendiko Txirrindulari Saria.

Anemia batek jota Drangoko Paretak utzi eta gailurrera heldu barik etxeratu beharra izan du Ion Lazkano eskalatzailak. Antza denez, gailurrerako metro gutxi falta zitzairenean eta lan gogorrena eginda zutenean, ondoezik eta indarrrik gabe sentitu zen bergararra; gauzak horrela, Kike de Pablos espediziokidearen laguntzaz paretatik behera jetxi beharrean aurkitu zen.


### Aukerak baditu oraindik

Drangoko Dorreetara espedizioa Pol-Polek bere 50. urteurrena ospatzeko aurten antolatu dituen bi espedizioetako lehendabizikoa da. Ion



Bergarara bueltatu beharra izan badu ere, Kike Nepalen bertan geratu da eta gailurra zapaltzeko azken saiakera egin dezake. Ionek berak, hara bueltatzeko aukerak izan ditzake oraindik, odol analisisiek uzten badiote behintzat.

Esan dezagun, bestalde, abuztu amaieran Bergaratik irtetzekotan den Dhaulagirira espedizioa aurrera doala: *«Ustekabe honek ez du Dhaulagirira espedizioa bertan behera utziko»* esan digu Ion Lazkanok berak, Bergarara itzuli denean.



## Denboraldi borobila

Azken urteotako denboraldi bikainena burutuz, Bergarako Igeri Elkarteak Gipuzkoako Txapelketan taldekako 3. postua (adinekoan 4.a) eta Euskadikoan 6.a (edadeka 3.a) lortu du. Horrez gain, indibidualki, Jon Jauregik Tenerifen jokaturako Espainiako Eskolarteko Txapelketan parte hartu du Euskadirekin (5.a 4x100 errelebo proban), Agurtzane Crespo Federazioak Cartagenan antolatutako *campus* batean izan da eta, azkenik, Jon Jauregi, Gorka Gonzalez, Aritz Garcia, Unai Alberdi eta Juan de Borjak abuztuan jokatu beharreko Espainiako Promozio Txapelketarako txartela lortu dute.

**Euskalduna  
Taberna**

**OSINTXU**

**Kailash**  
**Zentro Esoterikoa**  
Parasikologi Zientzien Institutu  
Hispano Amerikarrean diplomatutako  
profesionalak.

• Jarot-a • Hipnosia • Erresonantzia  
Eskaerak: Tfnoa: 76 01 31 (Iris)

**PRiMi**

- Mariskoak, arrain fresko eta izotzuak .
- Etxerainoko zerbitzua

Merkatuan Tfnoa: 76 15 90  
San Antonion Tfnoa: 76 21 08  
Matxiategin Tfnoa: 76 21 91



**Acero, 1.951eko Bergarako Futbol Txapelketa**

**A**ste honetan amaituko da adin guztietakoentzako Ipintzan jokatu den txapelketa. Aspaldikoak dira Bergaran herri mailako futbol txapelketak eta lehenago ere agertu izan ditugu Berrigarán gai horri buruzko hainbat erretratu.

Oraingo hau ere horietako bat da: orain dela 39 urte Acerok eta Madurak jokatu zuten finalekoa. Orduan Agorrosinen jokatzén zuten. Lehenengo partiduan, San Pedro egunean, huts eta huts egin zuten eta bigarrean San Martzial Txiki egun batean jokatu eta 3 eta huts irabazi zuen Acerok.

Erretratu honetan agertzen direnak Acero taldekoak dira, txapelketa geratu zirenak.

Ezkerretik eskumara, **zutik**: Sabino Madariaga, Pepe Solaun, Angel Mendibil, Gregorio Lazkano, Pako Eraña eta Iñaki Murgizu.

**Makurtuta**: Fernando Murua, Jabier Mujika, Francisco Gabilondo, Andres Azkargorta eta Alberto Zurro.

*Estepan Plazaola  
Argazkia: Alberto Zurro*

**AGENTZIA:**  
**J. ELKORO**

Ibargaral 2, behea  
Tfnoa: 76 57 85  
BERGARA

ZURICH

VITA

UNIBER



CAUDAL

HISPANA

**ZURICH TALDEA ASEGURUAK**

**DENA 100**

**pzta.tan**

**Ireki berria**

**SIMON ARRIETA 3an**

**ETXEBIZITZA**

**Pisua salgai** Bidekuru-tzetan. (5.000.000) ☎ 76 09 36.

**Santa Marina** inguruko garaje bat **Zapelaltz** aldeko baten ordez trukatu nuke. ☎ 76 58 61.

**Garajea alokatzen** dut **Torreku**an. ☎ 76 18 82 (gauzez).

**Pisua salgai** Koldo Eleizalden. ☎ 76 58 23.

**Apartamentua alokatzen** da (garaje eta guzti) **Jakan**. ☎ 76 43 98.

**Artekalen pisua salgai** ☎ 76 55 63. Gauzez.

**Garajea salgai** Espalorian. ☎ 76 01 95.

**Pisua hartuko** nuke alokairuan. ☎ 76 03 31.

**SALDU-EROSI**

**PCrako joku**ak salgai. Oso merke!! ☎ 76 17 85.

**Pisua salgai**: bi gela, saloia, sukaldea, bainua, buhardila eta berogailu zentrala. ☎ 76 49 71.

1.992-93 ikasturterako, egunero **Donostira** joan-etorria egiteko, **autobusa** bete nahi dugu. Interesatuta bazaude deitu 77 00 65era.

**ATARI bideo-kontsola**, 160 jokurekin, salgai. ☎ 76 39 86.

**Mendiko bizikletaren XT.92** freno beltzak salgai. ☎ 76 52 31 (gauzez).

**CX 2.600 ATARI** bideo-jokuak erdi-prezioan salgai. 10.000 pezeta, ia berria. ☎ 76 17 18

**Txakurkuma** bat oparitu nuke. **Collie** eta **artzal txakurra nahastua**. ☎ 76 23 43 (eguerdian).

**Seter txakurkumak** salgai ☎ 76 35 01 (gauzez).

**ATARI 2.600 bideo-kontsola** salgai. ☎ 76 44 67.

**2 CV aren erroberak** salgai (oso merke). ☎ 76 15 07 (Aniotz).

**Minox CT** argazki kamara, flash eta guzti, salgai. Berri-berria. ☎ 76 52 31.

**Bigarren eskuko futbolin eta billarrak** salgai. ☎ 76 12 00 / 45 21 19.

3 atedun **Opel Corsa 1.300 GTa** salgai (SS-X). ☎ 76 05 92 (gauzez).

**Uzarragan pultsera** bat topatu dut **Maltane** izenarekin ☎ 76 39 68.

**Matrimonio logela** bateko altzariak salgai ☎ 76 44 27 (gauzez).

6-10 urteko haur batentzat **mendiko bizikleta** salgai (BH marka). ☎ 76 56 97.

**XR 2 I kotxea** salgai. 2 urte, berri-berria. 55.000 Km. SS-AG. ☎ 76 55 80.

**Elektragailuak** (garbigailua, hozgailua...) **erosiko** nituzke ☎ 76 17 85.

**LANA**

14 urteko gazte batzuk **lokalak garbituko** lituzkete. ☎ 76 39 86 / 38 13.

**Taberna alokatzen** da ☎ 76 53 73.

**Arratsaldetan galxoak** eta **edadetuak** zaintzen lan egingo nuke. ☎ 76 46 90.

**Bajua** jotzen ikasteko **klaseak** hartuko nituzke. ☎ 76 17 85.

Emakumezko batek **haurrak** zaindu eta **etxeko lanak** egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

**Etxeko lanak** egin eta **umeak** zainduko lituzke neska batek ☎ 76 06 98 (Amaia).

Neska batek **etxeko lanak** egin eta **umeak** zainduko lituzke. ☎ 76 45 53.

**Mutil** batek kalitatezko ilustrazioak, erretratuak, irudiak etab. **marratzuko** lituzke ☎ 76 25 59.

**Edozein motatako lanak** makinaz edo ordenadorez pasatzen ditugu. ☎ 76 17 20 (Laura).

**Hildakoak**

**Valentin Belastegi Loidi**  
uztailaren 14an, 84 urte

**Jaiotakoak**

**Jokin Osa Eguren**  
uztailaren 11n  
**Ander Telleria Santorcuato**  
uztailaren 12an

**ARRASATEARRA**

Gure berezitasuna bazkariak. **Taberna**  
Eguneko menua daukagu.

Zubiaurre 22, Tfnoa: 76 20 19 **BERGARA**

**ONENA**

**TINDATEGIA**


Barrenkale 29, **BERGARA**

# HALTZARI

**FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA**

Harane Erreka 4  
Tfnoa: (943) 76 30 57

BERGARA  
(Gipuzkoa)



SUKALDERAKO ALTZARIAK



**6 URTEKO  
GARANTIA**

Adizu, oporretarako zapata  
berri, polit eta...

**OPOR GARAIAN  
APARTEKO BEHERAPENAK**



**ALDASORO**

**Zapatadenda**

BERGARA

OÑATI

LEGAZPI